

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA, INTERIOR Y JUSTICIA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

RELACIONES CIUDADANAS E INSTITUCIONALES

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

POLÍTICAS SOCIALES

DERECHOS SOCIALES

FOMENTO

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL, ADMINISTRACIÓN LOCAL, Y MEDIO AMBIENTE

## Azcona liburutegiko altxor eta bitxikeriak, guztion esku

*Aurtengo udaberrian zaintzako gordailuan jaso zuen Nafarroako Liburutegiak obra aipagarrienak digitalizatzen hasi da herritarrek gozatu ahal dezaten*

Miércoles, 29 de julio de 2015

Nafarroako Liburutegian entregatutako dohaintza edo zaintzako gordailu batzuen atzean bitxi bibliografiko batzuk, antzinako liburuak edo liburu arraroak, lehen edizioak eta jatorri entzutetsuak gordetzen dira.

Iragan udaberrian, Nafarroako Liburutegiak altxor horietako batzuk zaintzako gordailuan jaso zituen, dohaintza zabal eta ondo hornitutako batetik etorritakoak, eta 2005ean Kultur Intereseko

Ondasuneko izendapena jaso zuten. José María Azcona (1882-1951) idazle, liburuzale eta politikari tafallarraren biblioteca partikularra da, eta haren bilduman eskuizkribuak, inkunabileak, XVI. mendetik XVIII.era arteko mila inprimakitik gora eta bilduma hemerografiko garrantzitsu bat sartzen dira.

Jendeak aberastasun horiekin gozatzeko aukera izan dezan, Nafarroako Liburutegiak Azcona liburutegiko obra garrantzitsuenak digitalizatzeko prozesua hasi du jadanik [Nafarroako Liburutegi Digitalean](#) (BiNaDi) jasota uzteko, jende guztiarentzat nahiz ikertzaileentzat Nafarroako ondare bibliografikoa zabaltzeko tresna baliotsua dena. Jaraunselekin izenpetutako lankidetzaren bitartez Nafarroako Liburutegiari ematen zion funtsaren zaintza bost urterako, eta obrak digitalizatzeko konpromiso hori zehazten zuen ere.

### Tafallako eskuizkribuaren historia

Funts bibliografiko horren zati handi bat Nafarroari lotuta dago, edukietan nahiz pertsona eta inprimategi-zigiluetan. Haien artean, *Historia de Tafalla* eskuizkribua azpimarratu behar da –500 orri baino gehiagokoak– eta XX. mendearen hasieran Nicolás Giral eta Marsalek (1883-1917) egindakoa. Azken hori Tafallako pertsonaia bat zen, kazetaria, tokiko idazle eta historialari nekazetaria, "El Tafallesico" aldizkariaren



Nicolás Giral eta Marsalen (1883-1917) "Historia de Tafalla" eskuizkribua.

sortzaile eta zuzendaria, eta Julio Altadill-ekin elkarlanean aritu zen Tafallari buruz idazten "Geografía General del País Vasco-Navarro"-ren Nafarroari buruzko liburukian; eskuz idatzitako gazteriaren memoria batzuk ere utzi zituen.

Goiz samar hiltzeak *Historia de Tafalla* argitaratzen utzi ez bazion ere, 1912-13an bere hiriarri buruzko artikuluak argitaratu zituen "El Eco de Navarra" Canovas del Castelloren kontserbatzaileen bozeramaile zen egunkarian, Diario de Navarrarekin bat egin zuena 1913an. Haren lana Jose Beltranek baliatu zuen geroago *Historia de Tafalla* (1920) idazteko.

### **Instrucción breve del Maestro Martín de Miranda (1558)**

XVI. mendean, Espainia lehen-mailako potentzia militarra zen, nahiz eta kultur mailan ez zen hala gertatzen. Tailer tipografiko oso gutxi zeuden (Veneziak bakarrik, 150 inguru zituen), eta Madrilek, esaterako, ez zuen 1556ra arte tailerrik eduki.

Gaztelaniaz idatzitako liburu asko beste herrialde batzuetan argitaratzen ziren, Holandan, adibidez, Espainiako inperioaren barnean zegoena, edo Amberes, Basilea edo Lyonon. Barneko merkatu eskasa obra erlijioso, entretenimenduko literatura, gramatika, lege-bilduma edo historiara mugatzen zen.

Nolanahi ere, Azcona liburutegiak zituen antzinako inprimakien artean, bat, zalantzarik gabe, garrantzi handikoa da Nafarroako inprimategiaren historiarako: *Instrucción breve del Maestro Martín de Miranda, Visitador general, y Reformador del Obispado de Pamplona*, 1558an Lizarran Adrián de Amberesek inprimatutakoa.

Altxor bibliografiko horrek garrantziko bi meritu ditu: Azcona liburutegiko alea, ezagutzen den bakarra da. Nafarroako eliza-historiarako obra garrantzitsua da, eta bertan Trentoko Kontzilioaren ondoren elizak jarraitu beharreko erreforma eta erregela batzuk jasotzen dira.

### **XVIII eta XIX. mendeetako liburuxka nafarrak**


Bitxi eta bitxikerien artean, gainera, XVII eta XIX. mendeetako liburuxka nafarren nahaste bat dago, gai bitxi eta askotarikoak jasotzen ditu, eta beste garai batzuen emaitza da.

Azpimarratu behar dira, adibidez, Francisco Lacabek 1858an idatzitako *Defensa de los aldeanos de la Cuenca de Pamplona*; *Discurso en que se manifiesta que el oficio de cortador de carnes es una honesta ocupación* (Iruña, 1817); *Anuario industrial y comercial de Navarra para 1908*, merkataritzako errolda eta direktorio sakon bat garaiko publizitate askorekin; *Reglas y Constituciones de las Cátedras de Grammatica de la Ciudad de Pamplona* (1767), *Tratado de los vinos de Navarra* "Florencio de Villa inautari eta nekazari akreditatuak" idatzitakoa (Iruña, 1865), edo *Breve historia de las Obras Sociales de Olite*, Victoriano Flamariquek idatzia (Iruña, 1917).

### **Digitalizatzeko lanak**

Digitalizazioari esker, eskuratzeko zailak diren jatorrizko obrak eta antzinako aleak babestu daitezke. Prozesu geldoa da, ordea, eta BiNaDi-n soilik ondorego obrak digitalizatzen eta sartzen dira: beren berezitasun edo berriazko izaeragatik, Nafarroako memoria historiko, bibliografiko eta kulturalerako interesgarriak direnak.

Zalantzarik gabe, Azcona liburutegiko liburuki batzuk halakoak dira. Esan den moduan, funts horren zati handi bat Nafarroari lotuta dago, edukietan, pertsonailetan edo inprimategi-zigiluetan. Erabil daitezkeen baliabideen arabera, 25 inprimaki eta eskuizkriburen lehen hautaketa bat egin da, haiek guztiak oso liburu arraroak dira, orain arte inork digitalizatu gabekoak eta, haien artean, aurrez aipatutakoak daude.



Instrucción breve del Maestro Martín de Miranda (1558).

Liburutegiko langile teknikoek aurreikusten dutenez, udazken hasierarako 25 liburu eta liburuxka horiek *Nafarroako Liburutegi Digitalean* sartuta izango dira jadanik eta, beraz, nahi duen orok klik bat eginez kontsultatu ahalko ditu.